

Jaiotzak % 1,6 murriztu ziren 2023ko hirugarren hiruhilekoan Euskal AEn

Ezkondu gabe zeuden amen erditzeak guztien % 50 izan ziren eta amen % 31,3k atzerriko nazionalitatea zuen

2023ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan 3.478 haur jaio ziren — aurreko urteko aldi berean baino % 1,6 gutxiago—, Eustaten datuen arabera. Urteko jaitsiera metatua % 3,2koa izan da. Lurraldeka, jaitsierarik nabarmenena Gipuzkoan gertatu da, % 3; Bizkaian ere behera egin du, % 1,2; Araban, berriz, % 0,2 igo da. Kopuru absolutuetan, Bizkaian 1.763 haur jaio ziren, Gipuzkoan 1.150 eta Araban 565.

2023ko udako hilabeteetan, ezkontzaz kanpoko jaiotzak guztizkoaren % 50 izan ziren; 2022ko hiruhileko berean erregistratutako % 49,5en gainetik. Ehuneko hori % 53,3koa da Bizkaian, % 49,7koa Araban eta % 45ekoa Gipuzkoan.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, erdiak baino gehiago, 1.788, lehenengo seme-alabak izan ziren 2023ko hirugarren hiruhilekoan; 1.195 haur (% 34,4) aurretik beste haur bat zegoen familietan jaio ziren; eta % 14,2 familia bateko hirugarren eta ondorengo seme-alabak izan ziren.

Jaiotakoen amen % 10,9k 40 urtetik gora zituen

Jaiotzak amen adinaren arabera banatuz gero, 30-39 urteko amen taldea izan zen nagusi, eta horien artean izan ziren erditzeen % 68,8. Ehuneko askoz txikiagoa erakusten zuten 25-29 urtekoen taldeak (% 13,3) eta 25 urtetik beherakoenak (% 7); 40 urtetik gorako amen taldea, berriz, % 10,9 zen.

Ama ezkongabeen amatasun-adina ama guztiak hartuta kalkulaturakoa baino txikiagoa izan zen; izan ere ama ezkongabeen % 9,5ek 25 urte baino gutxiago zituen, eta % 15,8k 25-29 urte bitartean; 40 urtetik gorako ama ezkongabeak % 11 izan ziren.

Handitu egin da atzerriko nazionalitatea duten amen kopurua

2023ko uztaillean, abuztuan eta irailean, Euskal AEn jaiotakoen amen % 31,3k atzerriko nazionalitatea zuen. 2022ko aldi berean, ehuneko hori % 31,1 izan zen. Lurraldeka, Araban % 38,4 izan ziren, Gipuzkoan % 32,6 eta Bizkaian % 28,2.

Euskal AEn bizirik jaioak, amaren bizilekuaren lurralde historikoaren, sexuaren, adinaren, egoera zibilaren eta nazionalitatearen, hurrenkeraren eta jaiotza-hilabetearen arabera (1). 2023/III

	Egungo hiruhilekoa (III/2023)		Aurreko hiruhilekoa (II/2023)			Aurreko urteko hiruhileko bera (III/2022)		
	KOP	%	KOP	%	Gehikuntza	KOP	%	Gehikuntza
Euskal AE	3.478	100,0	3.238	100,0	7,4	3.534	100,0	-1,6
Araba / Álava	565	16,2	555	17,1	1,8	564	16,0	0,2
Bizkaia	1.763	50,7	1.581	48,8	11,5	1.785	50,5	-1,2
Gipuzkoa	1.150	33,1	1.102	34,0	4,4	1.185	33,5	-3,0
Sexua								
Mutilak	1.769	50,9	1.643	50,7	7,7	1.831	51,8	-3,4
Neskak	1.709	49,1	1.595	49,3	7,1	1.703	48,2	0,4
AMAREN ADINA								
= 24 urte	244	7,0	220	6,8	10,9	246	7,0	-0,8
25 - 29 urte	465	13,3	461	14,2	0,9	457	12,9	1,8
30 - 34 urte	1.251	36,0	1.148	35,5	9,0	1.231	34,8	1,6
35 - 39 urte	1.140	32,8	1.062	32,8	7,3	1.233	34,9	-7,5
= 40 urte	378	10,9	347	10,7	8,9	367	10,4	3,0
Amaren egoera zibila								
Ezkontua	1.739	50,0	1.631	50,4	6,6	1.783	50,5	-2,5
Ezkon gabea	1.739	50,0	1.607	49,6	8,2	1.751	49,5	-0,7
Amaren nazionalitatea								
Espainiarra	2.388	68,7	2.195	67,8	8,8	2.435	68,9	-1,9
Atzerikoa	1.090	31,3	1.043	32,2	4,5	1.099	31,1	-0,8
Jaiotza-ordena								
Lehenengoa	1.788	51,4	1.525	47,1	17,2	1.732	49,0	3,2
Bigarrena	1.195	34,4	1.234	38,1	-3,2	1.315	37,2	-9,1
Hirugarrena edo gehiago	495	14,2	479	14,8	3,3	487	13,8	1,6
Jaiotza-hilabetea								
Uztaila	1.183	34,0				1.256	35,5	-5,8
Abuztua	1.147	33,0				1.189	33,6	-3,5
Iraila	1.148	33,0				1.089	30,8	5,4


(1) Hiruhileko honetako eta aurreko hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira

Data 2023ko Irailaren 11

Iturria: Eustat, Jaiotzen Estatistika

Euskal AEn erregistratuta dauden eta Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak

Hilerokoa



Iturria: EUSTAT. Jaiotzen Estatistika

Informazio gehiago nahi izanez gero:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62